

EUSKAL ZINEMAREN GALA

# Emakumeak adoretu ditu Bilbatuak

IRENE ELORZA

Urtero legez, Victoria Eugenia antzokian ospatu zen atzo Euskal Zinemaren Gala. Bertan, Sara Bilbatua casting zuzendari eibartarrak Zinemira saria jaso zuen eta antzokian bildutako ikusleek *Bizimina* filmaren estreinaldiaren lekuko ere izan ziren.

Mikel Laboaren 'Antzinako bihotz' pieza dantza taupada bihurtuta hasi zen gala, euskal zinemagintzaren berzko izaeraren metafora gisa. Sarre-rakoak igarota, Sara Bilbatuari omenaldia egin zitzaion presentzialki zein bideo bidez. Izan ere, casting zuzendariaren lankide eta lagun ugari bidalitako bideoak ikusi ahal izan ziren antzokiko pantaila erraldoian. Jaime Rosales, Chus Gutiérrez, Guillermo del Toro, Juanma Bajo Ulloa eta Carlos Vermut zuzendariak, Esther García ekoizleak, Josean Bengoetxea aktoreak eta Espainiako Zinema Akademiako presidente Mariano Barrosok errespetuzko eta maitasunezko hitzak eskaini zizkioten Bilbatuari.

Sara Bilbatuak Aizpea Goenagaren eskutatik jaso zuen Zinemaldiak eta Ibaia eta EPE/APV ekoizleen elkarrekin euskal zineman nabarmena izan den pertsona bati ibilbidea aitortzeko ematen dioten ohorezko saria.



GARI GARAIALDE



*Bizimina.*

Merezimendua jasotzean, lehenik eta behin, CIMA (Asociación de Mujeres Cineastas de Medios Audiovisuales) izan zuen gogoan Bilbatuak "emakumeak bultzatzeagatik eta komunikabideetan ikusgarri egiten laguntzeagatik". Orohar, emakumeak zineman lan egitera animatu zituen, batik bat idazle moduan. "Oso inportantea da gure gizarte hobetzeko", adierazi zuen.

Besteak beste, Xabi Bandiniren eta Kukai Dantza Taldearen aktuzioekin osatu zen Euskal Zinemaren Gala.

## Artea sendabide kolektibo gisa

Egun bizitzen ari garen krisi-egoeran, egiten dakitena emateko betebeharrak eta erantzukizuna sentitu dute Kukai Dantza taldeko zuzendari Jon Mayak eta Arena Comunicacióneko Pablo Iraburu eta Migueltxo Molina zuzendariak. 2016an elkar ezagutu zuten, *Oskara* film luzea elkarlanean sortu zutenean. Oraingoan, pandemiak eragindako errealitateak bultzatuta, zerbait erabilgarria egiteko helburuarekin elkartu eta *Bizimina* proiektua burutu dute. Bidean, beste ohiko lagun batzuk batu zaizkie eta horren guztiaren emaitza da atzo estreinatuta zuten dokumental hibridoa. "Publikoarekin partekatu nahi genuen lana, islatuta eta elkartuta sentitzeko", adierazi dute egileek.

*Bizimina* filmean, pieza independente batzuen bidez, kontakizun bat osatzen da, eta bertan topatzen dute elkar gaurkotatzen handiko hainbat kontzeptuk: distantzia, besteen falta sumatzea, grina, komunitate-sentimendua, ezintasuna, isolamendua, nahasmena, itxaropena.

**MÁS DE  
1.000.000  
DE ESPECTADORES EN ITALIA**

STEFANO ACCORSI  
EDOARDO LEO  
JASMINE TRINCA

UN FILM DE  
**OZPETEK**

Director de  
**"HAMAM:  
EL BAÑO TURCO"**

ESTRENO EN CINE  
**TRUEBA**  
27 SEPTIEMBRE

#YoVoyAlCine

**LA DIOSA  
FORTUNA**

Colaborando por el programa El Cine y el Festival de la Unión Europea

WWW.KARMAFILMS.ES #LaDiosaFortuna KARMA films